

Hernanik kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 22a, asteazkena ::: 4.621 zk. ::: www.kronika.net

LAU HAIZETARA GOGOAN - HITZALDIA GAUR

Gotzon Garmendiak bake planaren klabe batzuk azalduko ditu gaur

Txuso Gomezek ere hitz egingo du gaurko hitzaldi hasieran. Biterin, 19:30etan.

NOLA dago Eusko Jaurlaritzako bake eta elkarbizitza plana? Zergatik dago geldirik, eta zerk mugiarazi lezake? Hitzaldia emango du Gotzon Garmendia andoaindarrak, gaur, 19:30etan Biterin. *Eusko Jaurlaritzako bake eta elkarbizitza plana eta oroimen historikoari buruz ariko da.*

Aurretik, Txuso Gomezek

Oraingo bake plana eta historian izan diren gehiago aztertuko dituzte gaur

hitz egingo du hainbat gertaera historikotaz, *Hernani y el Alzamiento militar fascista.*

Ajuria-Eneatik gaur egunera Gotzon Garmendia da Lau Haizetara Gogoan elkarteko kidea, eta prozesu honetan eta aurrekoetan zuzen zuzenean parte hartu izan du, eragile sozialen aldetik. Garmendiak azalduko ditu Ajuria-Eneatik gaur egunera izan diren bake planak. Berak dioenez, Ibarretxeren plana

eta Urkullurena ezberdinak dira; batek «ezker abertzalearekin aliantza» ikusten zuelako, eta besteak PSOeri gehiago begiratu dio. Klabe gehiago ere aipatzen ditu Garmendiak, adibidez, planaren blokeoan Jonan Fernandezek papera zein den, edo eragile sozialen presioak nola eragin dezakeen prozesuan. ||

Hasi dira egiten Portu-Karabel arteko oinezko eta bizikletentzako bidea

Bost metro zabaleko bidea izango da, eta Karabelgo zubi berria eta Portuko zubia elkartuko ditu. Atzo hasita, bi hilabete inguruan bukatuko dituzte lanak.

ATZO hasi ziren egiten Portu eta Karabel auzoa elkartuko dituen bide berria, oinezkoentzat eta bizikletentzat. Oraingo kotxeentzako bidearen ondoan egingo dute, eta altura berean joango da. Kronikak jakin ahal izan duenez, bi hilabete barru bukatuta egongo dira obrak. Zehatz esanda, bide hori abiatuko da etorkizuneko Karabelgo zubiaren aurreko errotondatik, eta Portutik Urrietara dijoan oinezko bidearekin elkartuko da.

Diputazioa ari da lanak egiten, eta Beasain eta Donostia elkartzen dituen Gipuzkoako bidegorri sarearen zati bat da hau; guztira, 250.000 euroko aurrekontua du. Bost metro zabaleko bidea da: bi metro oinezkoentzat, beste bi bizikletentzat, eta metro bat argia eta zuhaitzak jartzeko. ||



Hasi dira eskabadorak lurra mugitzen.

❖ HERNANI'N MUSIK Euskal Herriko rockaren historia gaur, hitzaldi musikatuan

Hernani'n Musik egitasmoaren barruan, hitzaldia eta musika entzunaldia antolatu ditu Musika Eskolak. Euskal Herriko rock musikaren historia aztertuko da bertan; Ritxi Aizpuru izango da hizlaria eta musika entzunaldi akustikoa eskainiko dute Gatibu taldeko Alex Sardui eta Mikel Caballerok. Sandiusterrin, 18:00etan, debalde. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA Hiru gai, gaurko batzarrean

Batzarra deitu du gaur San Joan Konpartsak, hiru gairi buruz aritzeko: San Joanak, Argentina eta Inauteriak. Transparkeren, 19:00etan. ||

❖ HITZALDIA Fiskalitateari buruz atzeratutako hitzaldia, bihar

Natzak hitzaldia antolatu zuen joan den astean, zerga sistema eta fiskalitatearen inguruan. Itziar Miner zen ematekoa, Diputazioko Zerga eta Finantza Politikako zuzendaria. Atzeratutako hitzaldi hori bihar emango du, 19:30etan, Udaleko areto nagusian. ||

❖ ELIZA Guraso eskolan, izen ematea

Guraso Eskola antolatu dute Inmakuladan, gurasoei nortasunean hazten lagundu eta seme-alabei baloreetan nola hezi erakusteko. Otsailaren 7an izango da aurreneko topaketa, arratsaldeko 16:45etatik 18:00etara. Parte hartu nahi dutenek aurretik izena eman behar dute: Inmakulada ikatetxean edo parrokiako bulegoan. ||

IPINTZA SAGARDETEGIAK
IPINTZA 20 PLANA
AURKEZTEN DIZU !

ASTEAZKENETIK OSTIRALERA
SAGARDETEGI MENUA
20 EUROTAN

BAKAILU TORTILLA
TXULETA
POSTREAK
SAGARDOA
...

20

ZATOZ EZAGUTZERA !

Santio Zeharra, 12 ASTIGARRAGA TEL 688 81 17 24 www.ipintza.com



ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
www.funerariavascongada.com

Orkolaga, 57
943-55 79 01
HERNANI

TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egunez: Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz: Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

GAZTE LOKALEI BURUZ HAUSNARTZEN

Gaur eta bihar, gazte lokalei buruzko aurreneko saioak

Gazteekin bilduko dira gaur; bizilagun, guraso eta herritarrekin bihar. Prozesua erabat bukatzeko beste hiru saio egingo dira geroago.

GAZTE Lokalei buruzko parte hartze prozesua gaur hasiko da eta bihar segi, Biterin egingo diren bi saiotan. Hernaniko Udalak alde batek gazteekin hitz egingo du, eta bestetik bizilagun, guraso eta herritarrekin. Lehen-dabiziko saioetan bakoitza bere aldetik elkartu nahi izan

Beste hiru saioak otsailean eta martxoan izango dira.

da, eta bilera horiek ematen dutenarekin, beste hiru saio egingo dituzte aurrerago, denak elkarrekin, eta erabaki

batzuk hartzeko asmoz.

Bi saioak Biterin

Gazteekin bilduko dira gaur, 18:30etan, Biterin. Gaia: *Gazte lokalak zergatik eta zertarako?*

Bizilagun, guraso eta herritarrekin bihar bilduko dira, 18:30etan, Biterin. Gaia: *Gazte lokalak eta elkarbizitza.* ||

2014KO TABERNETAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Txanpona airera, eta Iñigo Ugarterentzat txapela

Oier Iurramendi eta Ugarte berdinduta egon ziren azken momentura arte, eta txanpona airera botaz aukeratu zuten irabazlea.

12 partehartzaile eta giro bikaina izan ziren beste behin, Garinen.

IRUNERA joan zen 20garren txapela. Iñigo Ugartek irabazi zuen Tabernetako Bertsolari Txapelketa, bigarren aldiz. Leporaino bete zen Garin taberna; bertso gosez ziren hernaniarrak, eta giro bikaina jarri zuten guztiek. Hamabi partehartzailek borobildu zuten 20garren edizioa.

Ugarte eta Iurramendi desenpatatu ezin

Iñigo Ugarte eta Oier Iurramendi nabarmendu ziren igandeko finalean eta elkarren kontra aritu ziren Buruz Burukoan. Lotsa hitzarekin bertso bana bota zituzten lehendabizi. Iñigok esan zuen, lotsagarri eta lotsatuta, baina gustora zegoela; eta Oierrek lotsa momentu askotan sentitzen dela, baina bi trago hartu eta lotsa guztiak galtzen direla.

Gaia emanda, bina bertso bota zituzten. Gaia izan zen: Iñigo eta Oier, gaur elkarren ondoan esnatu zarete. Iñigok bukatu zuen esanaz: gaur bi gauza irabazi ditut, txapela eta mutila. Ugartek landutako ideia nagusia izan zen, gauza batzuk bila joan gabe etortzen direla. Oierrek amaitu zuen esanaz: esnatu aurretik banoa



Iñigo Ugarte, txapela soinean duela.

korrika. Gaia parranda baten bueltan enfokatu zuen Oierrek. Zioen, elkarrekin bukatu zutela, eta Iñigori ondo pasa zuela nabari zitziola, bera ordea, arraro sentitzen zela.

Buruz buruko berdinketa desenpatatu nahian, gai librean puntuka aritu ziren; baina horrela ere, ezin irabazlerik aukeratu. Kanadako txanpon batek aukeratu zuen txapel-

duna. Bertsotan, Iñigok basahuntzaren irudia zuen aldean aukeratu zuen; eta Oierrek aurpegiarena. Basahuntza atera zen, eta Iñigo Ugartek jantzi zuen txapela.

Antolatzaileek, eskerrak Txapelketako antolatzaile eta bertsolariak eskerrak eman nahi dizkiete gerturatu ziren guztiei izandako jarrera eta emandako babesagatik. ||

EGURALDIA

GAUR Euri giroa gaur ere. Goizean goizetik zaparrada batean ibiliko gara, eta aterrune handirik gabe segiko du. Ipar-mendebala, zakar. Min.7° / Max.11°

BIHAR Euria eta euria bihar ere, zarrarra botako du egun guztian, eta aterruneak oso konta-ahala izango dira. Ipar-mendebalak joko du, eta temperatura berdin. Min.6° / Max.10°

(euskalmet)



◆ ARRAUNA

Estropada txukuna, Hernaniko batelek

Gipuzkoako Batel Ligako bigarren estropada jokatu zen asteburuan San Juan eta San Pedro artean. Hasieran eguraldi ona bazen ere, batel batzuk euripean egin behar izan zuten estropada. 100dik gora batelek hartu zuten parte eta Hernanik 8 ordezkari edo batel eraman zituen. Txapelunik egon ez zen arren, lan txukuna egin zuten: mutil kadeteek bigarren bukatu zuten, mutil infantilek eta neska infantilek hirugarren, eta neska jubenil-seniorrek bederatzigarren. Datorren estropada igandean jokatuko dute, Oreretan. ||

◆ TXANTXANGORRI

Musean apuntatzeko azken eguna, bihar

Mus Txapelketa jokatuko dute urtarrilaren 28an Txantxangorri eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute alde aurretik. Elkartean apuntatu behar dute, eta bihar da azken eguna. ||

Zanbranara joateko, izen ematea irekita

Zanbranako ehiza jardunaldiak izango dira datorren otsailaren 15ean, 22an, martxoaren 1ean eta 8an. Larunbatez izango dira eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute elkarteko tabloian. Azken eguna bihar da. ||

◆ PALA IKASTAROA

Umeentzako ikastaroa, otsailetik aurrera

Pala ikastaroa antolatu du otsailetik aurrera Hernaniko pala taldeak. Egunak eta orduak hauek dira: astearte eta ostegunetan, 16:45etatik 17:45etara. Taldea sortuz gero, ostiraletan ere izango da aukera, 17:30etan. Izena emateko: 625 033 314 telefonora deitu edo frontoira azaldu, astelehen edo asteazkenetan, 20:00etan. Umearen datuak ere bidali behar dira helbide honetara: hernanikopalistik@gmail.com. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

LURDES MATEO MUJICA

ELIZATXO Harriola

Familiari besarkada bat

ELIZATXO IKASTOLAKO GURASO,
IKASLE ETA IRAKASLEAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 21ean

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)